

206

FALL-LE-3-(C2)

51

EUSKAL IDAZLEAK



*...alkar-batuago ta geruago ta antzekuaguak
izan biar garielako...
Basabe'tar K.*

**Basabe'tar Kandido, S. J.
(1867-1928)**

12-530

EUSKAL IDAZLEAK

BASABE'tar KANDIDO, S. J.
(1867 - 1928)

Laburpen-oarpenak:
Etxebarria'tar Juan Anjel



Euskal Biblioteka Labayru



1011673
LITERATURA / N. 1269

Aita Kandido Basabe Lekeitio'ko semea dugu. Aldian gugandik urbillekoa izan arren, arrazoi askogaitik, euskeraren klasikutzat ar genezake.

Bere bizitzako goraberek eta idaz-lanen zertzeladak Erkiaga'ren lan ederrean aurkituko dituzu.

Egilleak



ELEIZ-LIBURUCHUA

JESUS'EN LAGUNDIKO

A. KANDIDO BASABE'K

EGIÑA,

ETA

Latin eta Euskerazko

ELEIZ-ABESTIAKIN

BESTE BATEK GETTUTA

BIAR DIRIAN BAYAKIN

1912

BERBAURRIA

Euskaldun-a r i m e n onerako alneban-txuan biarran asi nitzanetik, sartu jatan gogua ispillu txiki baten lez ipinteko au-rrian euren kristinau-kizunak, bizitza on baterako zuzen-bidia, ta batezbe zelan on-do ta arin egin euren autorkuntza ta jau-nartziak.

Banekusan liburu ez gitxi orretarako, ta batzuk euskerarik ederrenian. Baña iza-nik biarren dirian gauzak ainbeste azaldu-ten eztabezanak, edo beintzat gaurko egu-nerako zarrak, eta karuegiak, eta orregai-tik danen eskuetara ezin eldu dirianak, asartu naiz, naita aren-erdi euskera jakin ez, Euskaldunai Jesusegan deutsedan maitetasunagaitik, arrapataka eginiko li-burutxu au eskintzen.

Ain Bizkai-barruko eztirian esakera ta irazkera batzuk, baña edonun aitzen diria-nak, ipiñi dodaz, Gipuzkuan Bizkaieraz egi-ten daben errientzat egokiagua izan de-din, eta alkar-batuago ta geruago-ta antze-kuaguak izan biar garielako (1).

Banako-aztermena: Ikusi zelako pekatu edo utsegitian geyen jausten zarian; eta gogor erabagi, etzariala gaur jausiko. Orretan indartzeko, esan iru bidar: Agur-Maria; ta arrituik geratuko zara, ikusi dai-zunian iru Agur-Maria onen indarra, onetan eta beste gauza gustietan.

Andra Mariari:

Zeu zara nire Jaube
Eta Ama laztana
Artu nire biotza
Begi, min ta dana.

San Joseri:

Errubako eguna,
Jose emoiguzu
Zaintzalle zaitugula
Garbi ta baketsu.

Aingeru Jagoliari:

¡Jainkuak emoniko
Aingeru maitia!
Jagon ni ta zuzendu
Gaurko egun gustian.

MEZA SANTUA

Ez gure erligiñuak dauko, ez Jaungoikuak berak asmau lei Meza Santua baño gauza andiago ta mesedegarriagorik. Jesu-Kristo gure Jaunak Aita Betikuari Kalbarioko mendian eskiñi eutsan opari edo sakrifiziua berbera da Mezia, desbardintasun bategaz; Kalbariuan Jesu-Kristo gure Jaunaren odola, izurten zala, Meza-tan ez; beste gustietan bat dira.

¿Zelan, orduan, batzuk, peseta bi edo iru abade jaunari luzatuta, esaten deutse: ¿Zenbat balio dau Meziak? ¿Zer da diñozuna? ¿Badago munduan urrerik ez zidarrik Meza bat erosteko? Munduko aberastan gustiak utsal (2) dira, arima bat diabruaren menpetik atera, ta inpernura biarran, zerura eruateko. Barriz orretarako Jesu-Kristo'en odol tanto bat naikua da. Bere odol tanto batek ainbeste balio badau, ¿zenbat balioko ete-dau bere odol gustiak? Ba, Meza batek, Jesu-Kristo gure Jaunaren odol gustiak-aña, balio dau.

Gogozko Jaunartzia: Eleiz-Amaren gurari bizia da Mezia entzuten dan bakotxian jaunartzia. Ezin badozu, egizu gogozko jaunartzia. Orretarako naikua da, jaunartzeko gogua eukitia, bizturik bere mesede andiak zeuganatzeko gurari bero-bero bat Erarik onena da Meza-emolliak jaunartzen daben bitartekua; baña egin lei nun eta noiz-nai, baita zeure eguneroko zeregiñetan jarduten dozula be, ta orixe da gogozko jaunartze onek benetakuari egiten deutsan (3) alde bata; ta bestia arrokeri barik, zeure albokuak berak eztakiala, egin al-izatia. Gurari biziz egiten dan jaunartziak, diñue jakitunak, egizko jaunartze epelak baño on geyago dakarrela arimara. Sta. Kataliña Sena'kuari edontzi edo baso bi bata urrezkua ta bestia zidarrezkua, erakutsita, adierazo eutsan Jaungoikuak, urrezkuak gordeten eutsazala egizko jaunartziak; eta gogozkuak, zidarrezkuak. Baña gogozko jaunartzerako be, egizko jaunartzerako lez, pekatu astun ezagun barik egon biar da arimia.

Emendik aurrera Meza-emolliak egiten dabena da, eskerrak emon Jaungoikuari,

jaunartuagaz egin deutsan mesede andiagatik. Emon zeuk be eskerrak, ainbeste bidar zeure barrura etorri dalako; edo, nai badozu, egin zeure otoi edo eskariak.

5

Aztertu gero ondo zure barrua, ta ikusi geyago pekaturik ez egiteko erabagirik ete-daukazun. Askok ez ikusi egiten dabe, eztaukelako erabagiri'k; txipiroiena, illundu ura, igesteko (4). Pekatu ariñetatik, aldala, aldenduteko erabagia, ona da, baña ez naita-ezkua. Ikusi zelako pekatueta jausi zarian' eta erabagi bein, birritan eta geyago, eztozula beste-bein egingo: alan sendatzen da gogo makala.

6

Etzaiz ibilli beti bildurra sartuta daukazu-la; ez egizu egin deun-auste (5) edo sakri-legio ikaragarririk, Jaungoikuak, beste asko lez, kastigau etzaizan be.

¿Ukatu dozu gure Erligiño Santuko egirik, barbarako inperua dagola? Eztabaidan ibilli edo dudau dozu zeure-artian? ¿Ukatu dozu aoz olako egirik, zeure barruan siñiztu arren? ¿Olako autuetan dabilzanai aurrerapiderik emon deutsezu, itaunakin, arpegi argia ipiñita, edo barre eginda?

Onako sinizgalduai arpegi txarra erakusten ez jakelako, zabaltzen duaz euskalerrian be, geure sinizte ederraren kontrako autuak, kalterik andiena, fediaren oztasuna, dakarrenak. Jaungoikuak erakutsi ta Eleiza-Amak siniztzeko erabagita daukazan egia ukatzia, iru pekatu andientari-kuetatik bat da, erejiako pekatu ikaragarria, gure asabak eriotziagaz ziatu edo kastigaten ebena.

¿Jaungoiko nai Santuari biraurik ezarrideutsezu?

Iru bekatu nagosienak itxita, auxe da beste gustiak baño andiagua: bere onduan eztauko zer ikusi ezta gizona iltiak be. —Oituraz esaten dot—. Ainbat txarrago, zer esaten dozun dakizula esaten badozu. Erdel-bedar (6) txar au euskalerrian be sartzen dua, guraso ta beste agintaritzia dauken gustiak egiñalak egiten ezta bezalako. Oitura diabruzko ori kentzeko, goizian-goizian erabagi biraurik ez esatia; ta uts egiten badozu, zigarrorik ez erre egun aretan; edo zenbat bidar esan dozun, ainbeste kurutze egin miñagaz lurrrian oerakuan.

Re esanda, Jaungoikuaren izena aita-zia, ezta pekatu astuna; ezta **como hay Dios**, guzurrez, esatia be.

OPIZUA GAITIK. Eztauke obligaziñorik baraurik egiteko; nekezaliak, atxurlariak, argiñak, ireltzeruak, arotzak, errementariak, zapatariak, okiñ edo panaderuak, bidaldi luze bat oñez egiñ biar dabenak, eta beste onen antzekuak. Josliak, alan an-

drazkuak, zein gizonezkuak, berez, ezta-
goz azkatuta; baña eurok, nai beste edoze-
ñek ezin badabenez bete euren egiñ-biarrak
barau eginda, eztagoz biartuta barau egi-
tera, ta bai ez egitera.

10

¿Lagun txarretatik aldendu dozuz?

Erromeria, nai neska-mutillak batzen
dirian beste lekuren batera, zainduko da-
bezan lagun bategaz izan ezik, juaten
itxi deutsezu?

Diabruak sartuta dauko, zoritxarrian,
euskalerrian erromerietako oitura, ain-
beste animen galgarria; ta batez-be, base-
rrietan zorotzat daukez aldentzen diria-
nak (7).

Baña oitura ori gorá-bera, egia da Elei-
zako Erakusla gustiak dirauskuena: lotuak
dagozala gurasuak, euren seme-alabak
pekatuko ariskuetatik, aldala, aldentutera.

¿Gaurko eromeriak barriz, norentzat

12

eztira pekatuko arrisku? ¡Eta aurkitzen di-
ra gurasuak erromeriak galerazo biarran
seme-alabai, euretara juateko zirikatzen
dabezanak!

**¡Kolokau egiñ biar doguz! ¡Ederto ko-
lokaten!**

Mutil askok zerbaitakuak izateko, eta
gurasuak Ameriketatik etorririko batzuen
diruai begi argiegia ipiñita, artzen dabe
asmua eurak juan edo semiak, txarrago
ondio alabak, bialtzeko: etorri dirianen di-
ruai ainbeste begiratu barik, obeto pen-
tsauko baleukie zelako bizitzia, ta batez-
be zelako eriotzia Ameriketan askok euki-
ten daben, eta euren sinizmen eta salba-
ziñua biar dan beste maite baleukie, beste
ardurarik eukiko leukie onetan. ¡Norae-
zian baño ezta bialdu biar! (8).

11

Alkate, Juez, Ayuntamientoko, Osagi-
lle, Maixu, ta onakuak, aztertu beyez ondo
euren egin-biarrak (9).

13

Naste-dantza edo **baltsiua** berez ezti-rudi pekatu, astuna beintzat. Esan nai da, naste-dantzan egiten daberen gustiak, egi-tiagaz, bakarrik, beste zerbaitegaitik ez-pada, eztala ziur pekatu astuna egiten da-bela. Baña ori gora bera, egiten da pe-katu astuna naste-dantza, nai beste edo-zelakuan: 1.º Ikutu txarrak egiñaz edo autu txarrak esanaz, nai gogo edo pentsamen-tu, zeñ gurari loyai leku emonaz. 2.º Ikutu txarrak egiten itxiaz, naita norberak atse-giñik artu ez, zegaitik itxi ezpadauko; ba lapurretan beste bati laguntzen deutsa-nak, berak ostu ez arren, pekatu egiten badau, lagundu biarrik ezpadauko; baita ikutu txarrak egiten istia, zeñ dantzan, zeñ beste edo-zelan, izango da pekatu as-tuna, naita norberak atsegiñ loirik artu ez.

Izan lei, batzuk-batzuk batera ez beste-ra pekaturik ez egitia. Baña batu aldra an-dian, estuestu, neska buru-ariñak, loikeriz eta ez gitxitan ardauz beteriko mutillakin, soñu, kanta, jantzi nasai ta beste aragia-ren biztugarri gustiak dagozan tokian; ibi-lli ordu bat edo bian loikeria baño ez iku-si, ez entzun, ez billatzen eztala; eta alan

askotan ardausaltzalliaikin bat eginda, geure artian sartu deuskuen erbesteko oi-tura gorpuz-arimen ondagarri au, ainbait lasterren euskalerra maitetik bere tokira botateko.

Eta Zu, neure Ama maitia, begi aiñ sa-murrakin, aiñ pozik begiratzen deustazun ezkerro, emon dodan berbia jagoten lagun-du eidazu. Aur neure biotz onen giltza, gorde eidazu eriotzaraño; ta iñoizko aldian eskatzen badeutzut, ez zoro baten esanai baño geyago jaramon, Zeu ta Zeure seme Jesus'egaz bizi, Zeuek lagunduta il, eta Zeuen arpegi ederra ikusten egon nadiñ betikotasun gustian. ¡Alan izan dedilla!

Begirakunetxu bat nire arimara be, ta Zure Biotz, errukitsu orretatik dariotzun graziako ur tanta bategaz baño ezpada

da gusti be pekatu astunak loitu barik ur-
teten dana, bene-benetan, edo da ainge-
rua edo da arria.

Orretxegaitik ezin siniztu dot, jolastu-
tia baño beste asmorik eztaukela diñuen
gustiak, egia autortzen dabela; ba zartza-
ruan edo eskontzeko egiten daben autor-
kuntzan, esan darue naztedantziagaitik:
¡Bagenkian gauza ona etzala, baño ¡gaz-
tiak izan! Egiñ daigun eztala orduan peka-
tuan jausten, baño ¿zelako irudiak sartuko
jakaz buruan? ¿Zelako gogo edo pentsa-
mendu, gurari ta pekaturako makurtasuna
etxako ortik sortuko? Alan ikusten dira
dantza-zalietatik eunetik lau eztiriala aur-
kitzen pekatu astun barik. Balak gerretan
gorputzik-aña arima, ilten dabez naste-
dantza madarikatu onek. ¡Bai! Aragiak
asten ditu naste-dantzak, aragiak daukaz
oñian, eta aragiak jarraitzen deutse. ¡Ken-
du aragia! Ta munduko gauzarik zoruenak
lez, bertatik kenduko dira nazte-dantza
gustiak. Orretxegaitik billatzen dabe naz-
te-dantza-zaliak gaba, bakartasuna, edo er-
bestia.

¡Bai! Konfesore, sermolari, agintari ta
batezbe gurasuak, gustiak alkar-artuta,
alegiñik andienak egiñ biar dira, diabruak,

be, garbitu nire biotza, Zeure seme Je-
sus'en aurrera orban barik agertu nadiñ;
eta eskutik artuta lez, eruan nagizu bera-
gana, edo obeto sartu zakidaz neure ba-
rruan, eta artuidazu zeuk, bizitzan artzen
zenduan lez, neure arima zikin onek loitu
eztaizun Zeure Seme maitia. Amen.

15

KURUTZETAKO EGINBIA

Munduan gozatuta
Jesusi jarraitu,
Izango ezin dana
Daigun ezagutu.

Neke ta Kurutzia
Irri ta barriak
Sarri izango ditu
Jesusen Semiak.

I

Erabagirik dago
Jesus Jaun maitia
Kurutzian ilteko
¡Zein atsekabia!

II

Orain artuten ditu
Jesus Jaun Maitiak
Gure pekatu danak
Kurutze batian.

III

¡Orra zein astuna dan
Nire pekatua!
Begira zelan daukan
Jesus auzpaztua.

IV

¡Nok aditu aldaike
Amaren penia,
Aurkiturik ain lotsaz
Seme ain maitia!

V

¿Kurutzia eruaten
Lagundu nai dozu?
Bada nun-nai nekia
Aurkitu daikezu.

VI

Zapi garbi batian,
Iru itzulitan,
Jesus'en arpegia
Gelditu izan zan.

VII

Bigarrenez Jesus
Jausi da emen:
Urten pekatutik
Ambat lasterren.

VIII

Zeri negar egin,
Zeugan daukazu;
Bada pekatua
Maitetu dozu.

IX

¡Oh, pekatuaren
Astuntasuna!
Irugarrenian
Jo egin dau lurra.

X

Billoitzasunak eta
Jantzi apainduak
Dauke Jesus billoizik
Dana lotsatua.

XI

Oiñ eta eskuak
Untzez josirik,
Emen dago Jesus
Miñez beterik.

XII

Il da, ba, Jesus
Gu biztuteko
Zeruko atiak
Edegiteko.

XIII

Amaren altzuan
Jesus dago illik;
Eztago ikusteko
Emen biotzik.

XIV

Obi barri bat nai dau
Zure biotzian
Jesus illa, betiko
Zu bizi zaitian.

16

ERREGUA. —¡Oh, Amarik errukarriena!
¡Zein bakarra gelditu zarian!— ¿Nun
dozu zure Semia?

¿Nun atsedengo (10) dau zure biotz
estutuak?

Orain artian, illik bada be, ikusten izan
dozu zure Semia; baña arlosa batek estal-
du dau, ta eztauke zure begiak inun atse-
giñik. Egin nagizu ni be zure negarren la-
gun, gero zeruan betiko atsegindu nadin.

17

37g. ORI BERA EUZKERAZ

Neure Ama—on laztana
Zuretzat ar—tu naizu,
Aldeztu ta—jagon beti
Zeruratu—nagizu.

Ama batek ezin badau
Semia txarto ikusi,
¿Zelan ama-rik onenak
Al-izango-nau itxi?

Diabruak,-griña txarrak
Eta mundu-galduak
Gogait einda,-nauke Ama,
¡Luzatu zeure eskuak!

Negarezko—erbestian
Asko igaroten dogu:
Gure malko samintsuak
Arren, Ama liortu.

OARRAK

- (1) Euskeraren batasunerako argiro laguntzen dau.
- (2) Ezerezak lez.
- (3) Atarjaten dautson bentajia, esango leukec euskaltzain batzuk.
- (4) Iges egiteko.
- (5) Itz-berrien bildur ez da, antzik bere ez.
- (6) Onetan bertsolariak ere kontzientzi gogorki biztua euki daroe:

Kostumbrea euskaldun
askok daukaguna,
gaizkiyago mintzatu ezin
balitz erdalduna;
lengo legea dago
emendikan juana,
asarretu dilako
gure Jesus ona,
kastigu au argatik
bota du gugana.

Pedro Santa Cruz (1839-1905).
IRU BERTSOLARI-AUSPOA, 66.
131-garren orrialdean.

Ta beste irrintzi batzuk, gorrotogarriak!
Minberatuten dabez gure belarriak...

Ai, birao txarriak
Irrintziaren orde z dantzuez mendiak!
(Zamarripa'tar Paul, "Gora Begira", 1927)

Gaur erdeldunak
sartuta,
axia emen
birauz bete da.
Zelan ondiño il etzara!
(Arana-Goiri'tar Sabin)

(7) Añibarro ta beste asko be auzi onetan
gogor eta setati sartu ziran.

(8) Arima aldetik bakarrik ez, gorputz eta
biotz alde utsetik ere gaitzesten dabe Ameriketara
joakera beste askok: esaterako Irazusta ("Joan-
xio" ta "Bizia garratza da" eleberrietan).

(9) Gaurko egunean politikan sartzen dala
esango leukie norbaitzuk.

(10) Usteko, maiteko ta oien antzera: atse-
den izango dau, atsedengo dau.

LABURPEN ONETAN AGERTZEN DIRAN

Aditz berenkoiak

IKUSI: ba-nekusan.

JAKIN: ba-genkian.

JARION: dariotzu.

Esakera bitxiak

Al nebantxuan

Egiten deutsan alde

Iñoizko aldian

Nun atsedengo dau

Itz bakanak

Arrapataka

Deun-auste

Kristiñau-kizuna

Naste-dantza

Gai jakingarriak

Amerikara joatea	10
Biraoak	8
Dantzak	12
Erromeriak	10
Euskeraren batasuna	1
Mezaren balioa	3

IDAZTI LAGUNTZAILLEAK

- K. Basabe, «Iñazio Deunaren Gogo-iñarkunak»
» » «Andra Mariaren Ezkutua» (Luis M.
Grignion Monfort'engandiko itzulpena, iñun
aipatu bakoa), Durango, 1914
Erkiaga'tar Eusebi, «Kandido Basabe». - Olerti,
1962 (separata)

AGERTUTAKO IDAZTIAK

1. Phedro'ren Alegiak I
2. Martial'en Ziri - Bertsoak I
3. Phedro'ren Alegiak II
4. Fatima'ko Ama Birjiña ta Umeak
5. Euskal Iztegi Laburra (A)
6. Esopo'ren Alegiak II
7. Agustin Deunaren Eskutitzak I
8. Gurutz - Bidea
9. Phedro'ren Alegiak III
10. Batikano II Batzar - Agiriak (Elezta kristau ez diran beste erlijioak)
11. Perrault'en Ipuñiak 2.^a edición
12. Batikano II Batzar - Agiriak (Gizarte artuemone-tako bideak)
13. Apuntes de Vascuence (Segundo Curso)
14. Lope de Vega - Bakar-Autuak
15. Liturji - Goratarreak
16. Jaungoikoaren Agerpena (Batikano - Agiriak)
17. Maitale Galdua (olerkiak)

18. Lati-izkuntzaren joskera (Orixe)
19. Euskal Iztegi Laburra (B - D)
20. Kristau - Aziera (Batikano Agiriak)
21. Euskal Iztegi Laburra (E - F)
22. Basoko Loreak (olerkiak)
23. Lo ta Amets (olerkiak)
24. Apuntes de Vascuence (Primer Curso) 3.^a Edición
25. Katalunya'ko Olerkiak
26. Bidaztien Aterpea
27. Apuntes de Vascuence (Tercer Curso)
28. Euskal Iztegi Laburra (G - I)
29. Galburutan (Gallastegi'tar Kauldi)
30. Euskerazko Meza (Intxausti'tar Artur)
31. Humanae Vitae
32. Euskal Idazleak (I) Mendiburu'tar S.
33. Gabon - Abestiak (Intxausti'tar A - Gallastegi'tar K)
34. Españi'ko Olerkiak euskeraz
35. Prantzi'ko Olerkiak euskeraz
36. Españi'ko Olerkiak euskeraz II
37. Euskal Idazleak (II) Añibarro'tar A.
38. Kikero'ren eskutitzak
39. Ezpata zorrotza - Ezkutuko aria (olerkiak - antzerkia)
40. Andersen'en Ipuñiak
41. Sortaldean - Gabon - abestiak (Gallastegi - Bengoa)
42. Ego - Ameriketako olerkariak euskeraz
43. Martiriei (Tertullian)
44. Liturji - Goratarreak II
45. Españi'ko Olerkariak euskeraz III
46. Euskal Idazleak (III) Juan de Tartas
47. Euskal Iztegi Laburra (J-K-L-LL)
48. Gogoetan (Olabeaga'tar Iñaki)
49. Zabiltzate Maitasunean (Batikano II - Agiriak)
50. Amets eta Egi (Gallastegi'tar Kauldi)
51. Euskal-idazleak (IV) Basabe'tar Kandido, S. J.